Ayuntamiento de Esteribar
Esteribarko Udala

# ESTERIBAR

AÑO 1 | diciembre 2020 - NÚMERO 3    1. URTEA | 2020ko - abendua - 3. ALEA




Escuela de Música Orreaga

Los puentes del Arga

La antigua ferrería y Real Armería de Eugi

Orreaga Musika Eskola

Argaren zubiak

Eugiko burdinola zaharra eta errege arma ola

IMPRESO SIN DOMICILIO POSTAL
POSTA HELBIDERIK GABEKO INPRIMAKIA

**Boletín de Información Municipal del Ayuntamiento de Esteribar**
**Esteribarko Udalaren Informazioa Aldizkaria**

BOLETÍN DE INFORMACIÓN MUNICIPAL | ESTERIBARKO UDAL INFORMAZIO ALDIZKARIA

**Año I - número 3**
**I Urtea - 3 alea**

**Edita | Argitaratzailea**
Ayto. de Esteribar
Esteribarko Udala
Avda. de Roncesvalles, 13 - 31630 - Zubiri
Orreaga Etorbidea
Tfno. | Tel.: 948 30 40 71
www.esteribar.org
**Diseño y redacción**
**Disenua eta erredakzioa**
Argus CCI Ediciones
**Fotografías | Argazkiak**
Blanca López
Archivo | Artxiboa
**Imprime | Imprimatzailea**
Huarte Gráfica
**Depósito Legal | L. gordailua**
D.L. 899-2020

## Feliz Navidad y Feliz 2021

### Zorionak eta urte berri on

Después de este año atípico y poco afortunado, quiero enviar desde estas líneas, en mi nombre y en nombre de la corporación y de los trabajadores del Ayuntamiento, un mensaje de ánimo, y desearos a todos una Navidad lo más feliz posible dentro de las circunstancias que nos deja la actual pandemia.
Con la esperanza de que el año nuevo 2021 sea bueno para todos y recuperemos pronto la normalidad.

Ezohiko eta zorigaiztoko urte honen ostean, zorion mezu bat helarazi nahiko nizueke Udalbatzaren eta udal langileen izenean. Ahalik eta Eguberri zoriontsuenak opa dizkizuet denei, egungo pandemia egoerak ahalbidetzen digun heinean, betiere. 2021 urte berria denontzat ona izanen delakoan eta laster normaltasuna berreskuratuko dugulakoan, jaso ezazue agur bero bat.

Matilde Añón. Alcaldesa. Alkatea.

## CONCEJOS KONTZEJUAK

C. de Antxoritz | Antxorizko K.: Ana Gurbindo | concejodeantxoriz@gmail.com
C. de Eugi | Eugiko K.: Unai Seminario | concejodeeugi@gmail.com 948 304 047
C. de Inbuluzketa | Inbuluzketako K.: Fran Equisoain | franequi@hotmail.es 948 304 139
C. de Iragi | Iragiko K.: David Sánchez | concejoiragi@gmail.com
C. de Larrasoaña | Larrasoañako K.: A. Mangado | concejodelarrasoana@gmail.com 699788034
C. de Saigots | Saigotzko K.: David Urio | davidurioe@yahoo.es
C. de Sarasibar| Sarasibarko K.: Enrique García | concejo.sarasibar@gmail.com
C. de Zabaldika | Zabaldikako K.: Cruz Zazpe | concejodezabaldika@gmail.com
C. de Zubiri| Zubiriko K.: Alvaro Fonseca | concejodezubiri@gmail.com 948 30 43 78
C. de Urdaniz |Urdaizko K.: Txus Arana urdaitzurdaniz@gmail.com

## ¡DESCUBRIR ESTERIBAR TIENE PREMIO!

Aquí tienes una foto de un lugar del valle. Si sabes cual es, envíanos tu respuesta a noticiasesteribar@gmail.com, tenemos un regalo para sortear el 15 de enero de 2021 entre quienes participeis.

Hona hemen bailarako toki baten argazkia. Zein den baldin badakizu, bidal iezaguzu zure erantzuna noticiasesteribar@gmail.com helbidera. 2021eko urtarrilaren 15ean opari bat zozketatuko dugu parte hartzen duzuenen artean.

## ESTERIBAR DESKUBRITZEAK SARIA DU!



## ¿QUIERES PUBLICAR EN EL BOLETÍN DE INFORMACIÓN MUNICIPAL?

## ALDIZKARIAN PARTE HARTU NAHI AL DUZU?

Si vives en Esteribar o perteneces a alguna asociación o grupo del valle y quieres hacer alguna aportación al Boletín de Esteribar, envíanos un mail a noticiasesteribar@gmail.com y nos pondremos en contacto contigo.

Esteribarren bizi bazara edo bailarako elkarte edo taldeko batekoa bazara eta Esteribarko Buletinean ekarpena egin nahi baduzu, bidali mezu elektronikoa noticiasesteribar@gmail.com helbidera eta zurekin harremanetan jarriko gara.








Foto cedida por la Escuela de Música Orreaga

La Escuela de Música Orreaga nació a mediados de los 80 en Aezkoa y hoy, en sus cinco sedes de Garralda, Espinal, Zubiri, Olloki y Artica, aglutina alrededor de 600 alumnos y 21 profesores. La Escuela de Música es una institución muy arraigada en Esteribar un centro docente de enseñanza no reglada que ofrece formación práctica dirigida a aficionados de cualquier edad y orienta hacia estudios profesionales a quienes demuestren una especial aptitud y vocación.

El Director de la Escuela de Música Orreaga, José Ramón García Beorlegui nos cuenta cómo se ha vivido en la escuela el fin de curso pasado y el comienzo del nuevo.

Marzo de 2019 supuso un duro revés para nuestra vida cotidiana y por supuesto para la Escuela de Música. De un día para otro las clases pasaron de ser presenciales a ser impartidas de manera virtual. Un viernes, de pronto, se cerraba la Escuela y el lunes siguiente veíamos a nuestros alumnos a través de una pantalla. Aquello que empezó siendo una medida provisional duró el resto del curso 2019-2020.

La respuesta del alumnado fue ejemplar y la música se convirtió en un aliado perfecto para sobrellevar la situación. Gran parte de las familias se mostraron muy agradecidas por el esfuerzo de intentar normalizar algo que para nada lo era.

Quedaron suspendidos audiciones y conciertos. El esperado concierto de “fin de curso”, en el colaboran todos los alumnos y se prepara con tanta ilusión, quedó suspendido, así como las fiestas en las que la fanfarre de alumnos pone su música y su alegría.

El nuevo curso empezó de la forma que todos estábamos deseando: presencialmente.

El miedo, la incertidumbre, y el no sabemos qué, ha hecho que este curso tengamos 138 alumnos, 24 menos que el curso pasado. La respuesta de las gentes del Valle, el apoyo a la educación musical por parte del alumnado, familias y Ayuntamiento ha sido muy buena y estamos muy contentos.

80ko hamarkadaren erdialdean Aezkoan sortu zen Orreaga Musika Eskola eta gaur egun, 600 ikasle eta 21 irakasle inguru biltzen ditu Garralda, Aurizberri, Zubiri, Olloki eta Artikako bost egoitzetan. Esteribarren oso errotuta dagoen erakundea dugu musika eskola. Arautu gabeko irakaskuntza-zentroa da, eta edozein adinetako zaleei zuzendutako prestakuntza praktikoa eskaintzen du, eta gaitasun eta bokazio berezia erakusten duten ikasleak ikasketa profesionaletara bideratu ohi ditu.

Orreaga Musika Eskolako zuzendariak, Jose Ramón García Beorleguik, iazko ikasturte amaiera eta berriaren hasiera nola bizi izan dituzten kontatu digu:

“2019ko martxoa oso kaltegarria izan zen gure eguneroko bizitzarako eta, jakina, Musika Eskolarako. Egun batetik bestera, eskolak aurrez aurrekoak izatetik birtualak izatera igaro ziren: bat-batean, ostiral batez, eskola itxi eta astelehenean ikasleak pantailaren bidez ikustera pasa ginen. Behin-behineko neurri gisa hasi zenak 2019-2020 ikasturte osoan zehar iraun zuen.

Ikasleen erantzuna eredugarria izan zen, eta aldi berean, musika aliatu ezin hobea bihurtu zen egoerari aurre egiteko. Familia gehienak oso eskertuta azaldu ziren erabat arrotza zen egoera nolabait normalizatzeko eginiko ahaleginagatik.

Entzunaldiak zein kontzertuak, den-dena geratu zen bertan behera. Tartean, ilusio handiz ikasle guztien artean prestatu ohi dugun ikasturte bukaerako kontzertua zein ikasleen fanfarreak alaitu ohi dituzten jai eta festak ere.

Ikasturte berria denok nahi genuen moduan hasi zen: aurrez aurre.

Beldurrak, ziurgabetasunak eta ez dakigu zehazki zerk eraginda, baina 138 ikasle ditugu ikasturte honetan, iaz baino 24 gutxiago. Ibarreko jendearen erantzunarekin batera, ikasleek, familiek zein Udalak musika-hezkuntzari emandako babesa handia izan da, eta benetan pozik gaude.

Seguimos impartiendo las clases con la misma alegría e ilusión de siempre pero con cambios importantes: geles hidroalcohólicos, la limpieza esmerada, la separación interpersonal y la ventilación han entrado en nuestras vidas. Y para muchos de nuestros instrumentos, la separación entre alumno y profesor a través de una pantalla protectora a modo de muro anti virus.

En verano el equipo directivo de la Escuela, a instancias del Departamento de Educación, elaboró un plan de contingencia que fue muy bien acogido por las familias y hasta hoy hace que la Escuela sea un lugar seguro para poder formarse.

Las clases, afortunadamente, son presenciales pero el virus sigue estando con nosotros y todas las semanas algún alumno debe permanecer confinado en casa. Por lo que també creamos un plan de atención personalizado para dichos alumnos y así no pierden clase cuando deben quedarse en casa.

Las clases de instrumento se imparten a través de vídeo llamada, intentando mantener el horario o adaptándolo al alumno y las profesoras de lenguaje musical se encargan de enviarles el trabajo de esa clase perdida.

Y mientras tanto la vida en la Escuela de Música sigue… porque la ilusión es lo único que no nos pueden quitar. Como dijo el filósofo…"la vida sin música sería un error".

Eskolak betiko poz eta ilusio berarekin ematen jarraitzen dugu, baina aldaketa garrantzitsuekin: gel hidroalkoholikoak, garbiketa arduratsua, pertsonen arteko bereizketa zein aireztapena gure bizitzetan sartu dira. Zenbait musika tresnen kasuan, ikaslearen eta irakaslearen arteko bereizketa zorrotzagoa ezarri behar izan dugu, birusen aurkako horma moduko pantaila babesleen bidez.

Hezkuntza Sailak eskatuta, eskolako zuzendaritzataldeak kontingentzia-plan bat egin zuen udan. Familiek harrera ona egin zioten, eta honen bitartez, eskola prestakuntza jasotzeko leku segurua dela berma dezakegu.

Eskolak, zorionez, presentzialak dira orain, baina birusak gurekin jarraitzen du, eta hortaz, ia astero ikasleren batek etxean egon behar izaten du. Honi begira, ikasle horientzako arreta plan pertsonalizatua ere sortu genuen, modu horretan, etxean geratu behar izanda ere eskolarik ez galtzeko.

Instrumentu-eskolak bideo deiaren bidez ematen dira, aukera bada ordutegia mantenduz eta bestela ikasleari egokituz. Musika-hizkuntzako irakasleak galdutako klaseei dagokien lana etxerako bidaltzeaz arduratzen dira.

Bien bitartean, Musika Eskolako bizitzak bere horretan jarraitzen du, ilusioa baita kendu ezin diguten gauza bakarra. Izan ere, argi dago filosofoak zioena: 'musikarik gabe bizitza akatsa izanen litzateke'.



Este año por culpa de la COVID-19 la fanfarre no pudo llevar su música y su alegría a las calles del valle. (Imagen cedida por la E. M. Orreaga)

Aurten, COVID-19aren erruz, fanfarreak ezin izan zituen bere musika eta alaitasuna bailarako kaleetara eraman. (E. M. Orreagak utzitako irudia)

## NUEVA ENVOLVENTE PARA LA E. INFANTIL DE ESTERIBAR

En el anterior número del Boletín hablamos sobre las mejoras en la envolvente térmica y la carpintería exterior de la E. I. de Esteribar, proyecto acogido a la convocatoria de subvenciones del Gobierno de Navarra a Entidades Locales para la realización de obras en Centros de 0 a 3 años. Las obras ya han terminado y la escuela luce sus nuevos colores. El proyecto ha sido redactado por Marta Pérez, arquitecta, e Iratxe Urra, interiorista experta en Feng-Shui.

## HAUR ESKOLAKO INGURATZAILE BERRIA

Aurreko zenbakian, Esteribarko Haur Eskolako inguratzaile termikoaren eta kanpoko arotzeriaren hobekuntzei buruz aritu ginen. Proiektu hori Nafarroako Gobernuak 0 eta 3 urte bitarteko zentroetan obrak egiteko toki-erakundeei diru-laguntzak ematuko deialdiari atxiki zitzaion. Behin lanak amaituta, eskolak kolore berriak ditu orain. Proiektua Marta Perez arkitektoak eta Feng-Shui-an aditu den Iratxe Urra barne-diseinatzaileak osatu dute.





Hablamos con Marta Pérez: "Durante el mes de octubre se ha realizado la primera fase de las obras de mejora de la envolvente térmica, y está previsto mejorar toda la envolvente del edificio que se construyó en torno al año 2007. Esta mejora ha consistido en suplementar una piel aislante en la fachada y la sustitución de casi toda la carpintería exterior. Las nuevas ventanas son de aluminio, tienen rotura de puente térmico, vidrios de control solar y persianas de aluminio con aislamiento inyectado en sus lamas.



Las fachadas se han revestido con panel composite de aluminio, en cuya cámara se han colocado 8 cm. de aislamiento térmico. También se ha elevado la altura de coronación del edificio a la espera de la siguiente intervención, que será cuando se suplemente la cubierta con aislamiento térmico y nueva impermeabilización. La prioridad ha sido mejorar el aislamiento del edificio mediante una envolvente continua que permite mejorar las condiciones térmicas y solventar los problemas de condensaciones, humedades y puentes térmicos existentes."

"Se ha aprovechado la obra para renovar su aspecto, empleando una composición de colores brillantes que varía en función de la orientación, siguiendo criterios de Feng-shui." Sobre la dificultad de realizar la obra en periodo lectivo nos dice: "Los trabajos se han realizado prácticamente todos en el exterior, lo cual ha facilitado su ejecución teniendo en cuenta las medidas de seguridad y protección frente al Covid-19."

Marta Perezekin mintzatu gara honen inguruan: "Urrian egin da lehen fasea inguratzaile termikoa hobetzeko. 2007 inguruan eraikitako eraikinaren inguratzaile osoa hobetzea dago aurreikusita. Hobekuntza horren ondorioz, fatxadan isolatzaile bat gehitu da, eta ia kanpoko arotzeria osoa ordeztu. Leiho berriak aluminiokoak dira, eta zubi termikoaren haustura, eguzki-kontroleko beirak eta lametan isolamendu injektatuko aluminioko pertsianak ere dituzte orain.

Fatxaden kasuan, aluminioko panel konposizioz estali dira, eta horien ganberan 8 cm-ko isolamendu termikoa jarri da. Eraikinaren gailurraren altuera ere igo egin da, hurrengo esku-hartzearen zain, estalkia isolamendu termikoarekin eta iragazgaiztasun berriarekin ordeztu arte. Lehentasuna eraikinaren isolamendua hobetzea izan da, baldintza termikoak hobetzeko eta dauden kondentsazio, hezetasun eta zubi termikoen arazoak konpontzeko aukera ematen duen inguratzaile jarraituaren bitartez. "

Horrela, "obra eskolaren itxura berritzeko aprobetxatu da, orientazioaren arabera aldatzen den kolore distiratsuen konposizioa erabiliz, eta Feng-shui-ari lotutako irizpideei jarraiki." Lanak eskola-garaian egiteko zailtasunari buruz honakoa esan digu Martak: "lan ia guztiak kanpoan egin dira, eta horrek erraztu egin du Covid-19aren aurkako segurtasun- eta babes-neurriak kontuan hartuta egin ahal izatea."

## EL DIR. GENERAL DE COHESIÓN TERRITORIAL VISITA ZUBIRI

Jesús Mª Rodríguez, D. General de Cohesión territorial, junto a la alcaldesa de Esteribar y varios corporativos visitaron Zubiri para conocer el proyecto realizado en la población dentro del Plan de Infraestructuras Locales (PIL).



Visita a los trabajos realizados en Zubiri. De izda. a dcha.: Ana Malumbres, Concejala del Ayto. de Esteibar, Edurne de Miguel, agente de Cederna Garalur; Maitane Núñez, Vocal del Concejo de Zubiri; Matilde Añón, Alcaldesa de Esteribar y Jesús María Rodríguez, Director Gral. de Administración Local y Despoblación.

El nuevo alumbrado público de tecnología LED se instaló, además de en Zubiri, en Eugi, Ilurdotz, Inbuluzketa, Larrasoaña, Saigots, Sarasibar, Urdaitz/Urdaniz, Urtasun y Zuriain. También se han renovado los centros de mando desde los que se controlan, lo que permitirá mejorar la eficiencia energética , reducir su factura eléctrica y aumentar su seguridad.

## ZUBIRI BISITATU DU LURRALDE KOHESIOKO ZUZENDARI OROKORRAK

Tokiko Azpiegituren Planaren (TAP) baitan herrian egindako proiektua ezagutzeko Zubiri bisitatu zuen Jesús Mª Rodríguez jaunak, Lurralde Kohesioko zuzendari nagusiak, Esteribarko alkatearekin eta zenbait zinegotzirekin batera.

LED teknologiako argiteria publiko berria, Zubirin ez ezik, Eugin, Ilurdotzen, Inbuluzketan, Larrasoañan, Saigotsen, Sarasibarren, Urdaitzen, Urtasunen eta Zuriainen ere instalatu zen. Honekin batera, kontrolerako erabiltzen diren aginte-zentroak ere berritu dira, energia-eraginkortasuna hobetu, argindarraren faktura murriztu eta segurtasuna handitze aldera.

# Los puentes del ARGAren zubiak

Dentro del proyecto de cooperación transfronteriza Kintoan Barna se ha preparado un recorrido por Esteribar con juego incluido. En los establecimientos hosteleros del valle señalizados como adheridos con el correspondiente cartel indicador, podrá recogerse el mapa en el que están indicados los 10 hitos y que incluye unas casillas que deberán marcarse en cada uno de los paneles indicadores. Cuando se haya completado el recorrido, habrá que presentar el mapa en cualquiera de los establecimientos adheridos y se entregará un regalo.

El recorrido “Los puentes del Arga” nos llevará a conocer 10 lugares emblemáticos que acompañan el trazado de nuestro entrañable Arga a lo largo del valle. Desde su nacimiento en el Collado de Urkiaga iremos descendiendo hacia Pamplona y conoceremos el Puente de Preseta en el Quinto Real, la Real Fábrica de Municiones con sus arcadas y el embalse de Eugi; el puente de hierro de Saigots, los puentes medievales de Urtasun, de La Rabia en Zubiri, de Larrasoaña y de Irotz, recien restaurado por la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona, para terminar en el Palacio de Olloki, recientemente rehabilitado. Cada hito se acompaña por un panel informativo que nos propone además visitar otros espacios cercanos.

Kintoan Barna está financiado por el POCTEFA (Programa Interreg España-Francia- Andorra) y el gobierno de Navarra y a través de diferentes acciones pretende la dinamización económica mediante la revalorización patrimonial, apoyando a las entidades locales del territorio, la población, las empresas de los sectores turístico, cultural, deportivo, hostelero y de elaboración de productos locales, en un entorno de colaboración transfronteriza, en este caso, con el territorio histórico de la Baja Navarra, desde S. Jean de P. de Port a Pamplona en base al desarrollo sostenible. Colaboran en este proyecto Cederna Garalur y Nafar Basoak.


Puente Medieval de Saigots

Kintoan Barna mugaz gaindiko lankidetza proiektuaren baitan, ibilbide berezi bat prestatu da Esteribarren zehar, joko eta guzti. Atxikita dauden eta kartel adierazlea duten bailarako ostalaritza-establezimenduetan, 10 mugarri jasotzen dituen mapa eskuratu ahal izanen da. Mapa horretan zenbait lauki daude, panel bakoitzean markatzen joan beharko direnak. Behin ibilbidea amaituta, atxikitako edozein establezimendutan mapa aurkeztu eta opari bat jaso ahal izanen da trukean.

Horrela, ‘Argaren zubiak’ ibilbideak, ibarreko 10 leku esanguratsu ezagutzera eramango gaitu, gure Arga maitagarriak bailaran zehar egiten duen bide ertzean barna. Urkiaga muinoan jaiotzen denetik Iruñerantz jaisten joango gara, eta besteak beste, honakoak bisitatuko ditugu: Presetako zubia Kintoan, Errege Arma Ola eta bere arkuak zein Eugiko urtegia; Saigosko burdinazko zubia, Urtasun, Zubiri, Larrasoaña eta Irozko Erdi Aroko zubiak (azken hau Iruñerriko Mankomunitateak berriki zaharberritu duena), eta bukatzeko, orain gutxi berritutako Ollokiko jauregia. Mugarri bakoitzari informazio-panel bat dagokio, eta hauetan bertan ageri dira hurbileko beste zenbait espazio bisitatzeko proposamenak ere.


Puente Medieval de Urtasun

Kintoan Barna proiektua POCTEFAk (Interreg programa, Espainia-Frantzia-Andorra) zein Nafarroako Gobernuak finantzatzen dute. Proiektuak ekonomia dinamizatu nahi du, hainbat ekintzaren bidez: besteak beste, ondarearen balioa handituz eta lurraldeko toki-erakundeei, biztanleriari, turismo, kultura, kirola, ostalaritza eta tokiko produktuen ekoizpen sektoreetako enpresei laguntza emanez, lurralde garapenaren ikuspegian eta mugaz gaindiko lankidetza ingurunean, kasu honetan, Nafarroa Behereko lurralde historikoarekin batera, Donibane Garazitik Iruñeraino. Proiektu honetan parte hartzen dute Cederna Garalurrek zein Nafar Basoak Elkarteak ere.



¡FELIZ NAVIDAD! DICIEMBRE 2020KO ABENDUA ZORIONAK!



## EL PLAN ENERGÉTICO “NAVARRA HORIZONTE 2030” EN ESTERIBAR

## “NAFARROA 2030 IKUSMUGA” PLAN ENERGETIKOA ESTERIBARREN

El ayuntamiento de Esteribar junto a otros 50 ayuntamientos navarros firmó en 2019 el Pacto de Alcaldías por el Clima y la Energía de Navarra, inscrito dentro de las políticas que la U.E. estableció para todos los países miembros ante la emergencia climática y ambiental. Uno de los principales objetivos es conseguir la reducción de emisiones de CO2 en al menos un 40% dentro del periodo 2021-2030.

El Gobierno de Navarra en el Plan Energético de Navarra Horizonte 2030 y en su anexo Plan de Autoconsumo y Acumulación Eléctrica, establece acciones que persiguen la mejora de la eficiencia energética y el uso de fuentes de energía renovables para el autoconsumo. Los proyectos ejecutados han sido redactados por el ingeniero industrial David Gordejuela en virtud del Convenio de Colaboración suscrito entre la Asociación Cederna Garalur y Nasei Ingeniería S.L. para la creación y desarrollo del servicio de ahorro energético y gestión energética en el territorio de la montaña de Navarra. Para realizar estas obras de mejora el Ayuntamiento ha contado con subvenciones del Departamento de Industria del Gobierno de Navarra.

Se han colocado placas fotovoltaicas en el tejado del Polideportivo que generarán energía para el autoconsumo de la instalación y del Colegio Gloria Larrainzar. Con este nuevo sistema, se autogenerará energía para la climatización (aire acondicionado) y la iluminación de ambas dotaciones. La energía sobrante se revertirá a la red y la compañía eléctrica descontará de la factura las cantidades correspondientes a ese excedente energético.

El mismo sistema de autogeneración servirá para alimentar la estación de recarga para vehículos eléctricos que se ha instalado en el aparcamiento frente a la entrada del Polideportivo y que incluye dos enchufes de alimentación de tipo básico. los puntos de recarga aún no han entrado en funcionamiento, en cuanto lo hagan se comunicará a la ciudadanía.



Esteribarko Udalak, Nafarroako beste 50 udalekin batera, Klima eta Energiaren aldeko Nafarroako Alkateen Ituna sinatu zuen 2019an, Europar Batasunak klima eta ingurumen larrialdiaren aurrean herrialde kide ororentzat ezarritako politiken barruan. Honen helburu nagusietako bat da CO2 isuriak gutxienez % 40 murriztea 2021-2030 aldian.

Nafarroako Gobernuak energia-eraginkortasuna hobetu eta autokontsumorako energia-iturri berriztagarriak erabiltzea helburu duten ekintzak ezartzen ditu Horizonte 2030 Nafarroako Energia Planean eta Autokontsumo eta Metaketa Elektrikoaren Planaren eranskinean. Gauzatutako proiektuak David Gordejuela industria-ingeniariak idatzi ditu, Cederna Garalur Elkarteak eta Nasei Ingeniería SL enpresak sinatutako lankidetza-hitzarmenaren arabera, Nafarroako mendialdean energia aurrezteko eta energia kudeatzeko zerbitzua sortu eta garatzeko. Hobekuntza lan horiek egiteko, Udalak Nafarroako Gobernuko Industria Departamentuaren diru-laguntzak jaso ditu.

Honi esker, plaka fotovoltaikoak jarri dira kiroldegiko teilatuan, instalazioaren eta Gloria Larrainzar Ikastetxearen autokontsumorako energia sortzeko. Sistema berri horrekin, klimatizaziorako aire girotua eta bi horniduren argiztapenerako energia autokudeatuko da. Energia soberakina sarera itzuliko da, eta elektrizitate-konpainiak fakturatik deskontatuko ditu energia-soberakinari dagozkion kopuruak.

Era berean, ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioa elikatzeko erabiliko da autogenerazio-sistema. Estazio hori kiroldegiaren sarrera aurreko aparkalekuan jarri da, eta elikatzeko bi entxufe ditu. Kargatzeko puntuak oraindik ere martxan egon ez arren, egin bezain laster jakinaraziko zaie herritarrei.

Un paseo por Esteribar

## RUTA 12 DE EUGI A ZUBIRI

Dentro del proyecto europeo Kintoan Barna se ha creado un recorrido entre las poblaciones de Zubiri y Eugi que parte desde el Polideportivo y está pensado tanto para quienes quieran caminar como para los amantes de la BTT. El camino une ambas poblaciones y discurre por senderos rurales paralelos al curso del río Arga. Tiene un trazado sencillo que puede realizarse tranquilamente en familia, un desnivel de 229 m. y un recorrido aproximado de 7 Km. durante los cuales descubriremos zonas de bosque con hayas, pinos y robles; recorreremos el trazado de la Regata de Etxarro; disfrutaremos del bonito puente medieval de Saigots, recién restaurado por Príncipe de Viana, y del embalse de Eugi. Si salimos de Zubiri, al llegar a unos 500 m.del puente medieval de Urtasun, el camino se bifurca y podremos elegir entre seguir caminando por la ladera del Azegi o, si vamos en bicicleta, continuar por la carretera hasta llegar al pueblo de Eugi, donde podremos descansar y reponer fuerzas contemplando su emblemático embalse.



Este sendero recorre partes de la GR-225 y del Sendero Local N-41 compartiendo señalización con ambos. Al salir de Zubiri hay un tramo que discurre por la NA-138 por lo que hay que tener mucha precaución debido a la circulación de vehículos.

Existe un trackeo de esta pista que está disponible en la página web www.eremua.com con la denominación Ruta 12- Kintoan Barna Eugi-Zubiri, desde donde se puede descargar tanto para bicicleta como para senderismo, y la ficha técnica del recorrido. En la contraportada del Boletín podÉis encontrar una ficha recortable con el recorrido.

Ibilaldia Esteribarren barna

## 12. IBILBIDEA EUGITIK ZUBIRIRA

Kintoan Barna europar proiektuaren baitan, Zubiri eta Eugi herrien arteko ibilbide bat sortu da, oinez ibili nahi dutenentzat zein BTT gustuko dutenentzat egokia. Bidea kiroldegitik abiatzen da, bi herriak lotzen ditu eta Arga ibaiaren paraleloan dauden landa-bidezidorretatik igaroz. Ibilbide erraza da, familian lasai egin daitekeena, 229 m-ko desnibela eta 7 km-ko luzerakoa gutxi gorabehera. Ibilbidean zehar pagoak, pinuak eta haritzak dituzten basoak aurkituko ditugu; Etxarroko errekaren trazadura zeharkatuko dugu; eta besteak beste, Vianako Printzeak zaharberritu berri duen Erdi Aroko Saigosko zubi ederraz zein Eugiko urtegiaz gozatzeko aukera izanen dugu. Zubiritik abiatuta, Urtasungo Erdi Aroko zubitik 500 bat metrora, bitan banatzen da bidea, eta aukera izanen dugu oinez Azegiko hegaletik segitzeko, edota Eugira iritsi arte bizikletaz errepidetik jarraitzeko. Bertan, urtegi ospetsuari begira atseden hartu eta indarrak berritu ahal izanen ditugu.

Bide horrek GR-225 eta N-41 tokiko bidezidorraren zatiak zeharkatzen ditu, eta biekin partekatzen ditu seinaleak. Zubiritik irtetean, NA-138 errepidetik doan zati bat dago; beraz, kontu handiz ibili behar da bereziki tarte horretan, ibilgailuen zirkulazioa dela eta.

Pista horren jarraipen edo trackeo delako bat dago www.eremua.com webgunean, 12. Ibilbidea- Kintoan barna Eugi-Zubiri izenarekin, eta bertatik deskarga daitezke puntuak edo trackak, bai bizikletarako, eta baita oinezko ibilbideetarako ere, ibilbidearen fitxa teknikoarekin batera. Aldizkari honen kontrazalean ibilbidearen fitxa ebakigarria txertatu dugu, eskurago izan dezazuen.

## PLENOS MUNICIPALES ON LINE

¿Has asistido alguna vez a un pleno municipal? ¿Sabes que son públicos? Desde el inicio de esta legislaltura se realizan videoactas que pueden verse en el apartado "Ayuntamiento/DocumentosOficiales/ Actas de Pleno" de www.esteribar.org. Debido a la pandemia se realizan de forma presencial con un máximo de 2 concejales por grupo y el resto de corporativos asisten de forma telemática. Los plenos se celebran el último jueves de mes a las 17,30 h. y se retransmiten en directo. Gracias a las nuevas tecnologías, podemos asistir en tiempo real, desde casa y saber qué ocurre en ellos, de qué se habla y qué se decide. También podrás verlos en el momento que tú decidas.



## UDALEKO OSOKO BILKURAK ONLINE

Izan al zara inoiz udalbatzarren batean? Ba al dakizu publikoak direla? Legegintzaldi honen hasieratik bideoakta delakoak egiten dira, eta www.esteribar.org webguneko "Udala/Agiri Ofizialak/Osoko Bilkuren Aktak" atalean ikus daitezke bideoz. Pandemia dela eta, aurrez aurre egiten dira osoko bilkurak, talde bakoitzeko 2 zinegotzik parte hartzen dute gehienez, eta gainerako zinegotziak modu telematikoan aritzen dira. Hileko azken ostegunean elkartzen dira, arratsaldeko 17:30ean, eta zuzenean ematen dira bideoz. Teknologia berriei esker, denbora errealean ala norberak nahi duen unean jarrai ditzakegu etxetik bertatik, eta hartara, bertan gertatzen denari buruz, hitz egiten denaren inguruan jakin eta hartzen diren erabakien berri izan dezakegu.







## UN ROCÓDROMO Y EL NUEVO CLUB DE MONTAÑA DE ESTERIBAR

Nuevo, espectacular y con 3 paredes, así es el Rocódromo del Polideportivo de Esteribar. Un espacio para disfrutar de la escalada de una forma diferente, y una zona de entrenamiento específica. Hay varias formas de poder disfrutarlo; abonarse a la instalación, ser socio del Club de Montaña de Esteribar o inscribirse en los cursos específicos que se organizan en el Polideportivo. Actualmente existen dos grupos de entrenamiento de escalada uno de la categoría Infantil y otro de Adultos, pero por la actual situación únicamente se permite realizar actividades a grupos de máximo 6 personas.

Asier, el gerente de la empresa pública Zubilan que gestiona la instalación, nos explica que para utilizar la instalación hay que estar federado y que la Federación Navarra de Montaña establece estas cuotas en función de las diferentes modalidades deportivas.

En cuanto al Club de Montaña de Esteribar, de reciente creación, explica que ya cuenta con 50 socios y que se han establecido un calendario de salidas a la montaña para cuando finalice la actual situación. Si alguien quiere informarse sobre el Club de Montaña de Esteribar, solo hay que llamar al Polideportivo (948 34 007) donde os informarán.

## ROKODROMOA ETA ESTERIBARKO MENDI TALDE BERRIA

Berria, ikusgarria eta 3 paretakoa, horrelakoa da Esteribarko Kiroldegiko rokodromoa. Eskaladaz beste modu batean gozatzeko gunea, eta berariaz entrenamendurako sortua. Hainbat modu daude erabili ahal izateko: instalazioan abonatzea, Esteribarko Mendi Taldeko bazkide izatea edota kiroldegian antolatu ohi diren ikastaro berezietan izena ematea. Gaur egun, eskaladako bi entrenamendu-talde daude, bata haurrena eta bestea helduena, eta egungo egoera dela eta, gehienez 6 laguneko taldeak aritzen dira.

Instalazioa erabiltzeko federatuta egon beharra dela azaldu digu Asierrek, rokodromoa kudeatzen duen Zubilan enpresa publikoko kudeatzaileak. Kirol-modalitateen arabera, Nafarroako Mendizale Federazioak berak ezarri ohi ditu dagozkion kuotak.

Sortu berria den Esteribarko Mendi Taldeak 50 bazkide ditu jada, eta egungo egoera amaitzen denerako mendi irteeren egutegia ezarria dute jada Zubilaneko kudeatzaileak azaldu gisan. Honekin batera, inork Mendi Taldeari buruzko informaziorik jaso nahiko balu, kiroldegira deituz jaso daitezke xehetasunak: 948 34 007.

## ATEKOA DE IRAGI, UN QUESO CON PRIMER PREMIO

En Iragi, la familia de Ángel Linzoain se ha dedicado a la ganadería desde toda la vida y sus ovejas siguen pastando en los prados y comunales de Iragi . Con la leche producían queso para consumo de casa hasta que en 1997 se plantearon elaborarlos para la venta. Fue hacia 1999 cuando se creó la quesería Atekoa que produce bajo la D.O. Idiazabal utilizando únicamente leche cruda de ovejas Latxas y pertenecen a la asociación de pastores "Artzai Gazta", desde donde reciben asistencia técnica. Sigue siendo una empresa familiar, todos arriman el hombro, no solamente hay que cuidar el ganado y ordeñarlo, de esto se ocupan Ángel y sus hermanos, también hay que ir a ferias, vender y atender muchas otras cuestiones.

Ángel elabora el queso y transmite un profundo cariño por su trabajo, un trabajo premiado el pasado 4 de octubre, el queso de Atekoa se llevó el primer premio de la 39 edición del prestigioso concurso de quesos que se celebra dentro del Artzai Eguna en Uharte-Arakil, aunque este año por causa de la Covid-19, la organización Aralar Mendi decidió llevar a cabo el certamen a puerta cerrada.

Ángel nos dice: " Recibir un premio siempre se agradece. Es curioso cómo los concursos te dan a conocer. A la media hora de recibir el premio ya

## IRAGIKO ATEKOA, LEHEN SARIA DUEN GAZTA

Iragiko Angel Linzoainen familia betidanik aritu izan da abeltzaintzan, eta gaur egun ere, bertako belardi eta herri-larreetan bazkatzen jarraitzen dute bere ardiek. Esnearekin etxerako gazta ekoizten zuten, 1997an salmentarako egitea erabaki zuten arte. 1999 inguruan sortu zen Atekoa gaztandegia, eta Idiazabal Jatorrizko Izendapenaren azpian ekoizten dute, ardi latxen esne gordina soilik erabiliz. Artzai Gazta elkarteko kide dira, eta laguntza teknikoa jasotzen dute bertatik. Familia-enpresa izanik, kide guztiek hartzen dute parte nolabait: Angel eta bere anaiak ganadua zaindu eta jezteaz arduratzen dira, baina honetaz gain, bestelako lanak ere egin behar izaten dira, adibidez, azoketara joan, saldu eta beste hainbat kontu.

Angelek zinez maite du bere lana eta hain zuzen ere bere gaztak eskuratu zuen joan den urriaren 4an, Uharte-Arakilen egiten den Artzai Eguneko gazta lehiaketa ospetsuaren 39. edizioko lehen saria, nahiz eta aurten, Covid-19aren ondorioz, Aralar Mendi elkarteak lehiaketa ateak itxita egin.

Sariari buruz, honakoa adierazi digu Angelek: "Sari bat jasotzea beti eskertzen da. Bitxia da lehiaketek nola ematen zituzten ezagutzera. Saria jaso eta ordu erdira Madrilgo pertsona batek deitu zigun gazta eskaera bat egiteko ". Azken hau ordea, ez da

nos llamó una persona de Madrid para hacer un pedido de queso". Pero según nos cuenta, no ha sido el único premio que ha recibido Atekoa: "Algunas veces nos hemos presentado a concursos, tanto nacionales como internacionales y hemos recibido varios premios, entre otros en 2008 ganamos Medalla de Oro World Cheese, celebrado en Dublín, y en 2009 la Medalla de Bronce en el World Cheese de Canarias. Con estos certámenes hemos viajado y conocido gentes y modos de trabajar de otros sitios. La formación es necesaria, te mantiene en movimiento y te ayuda a mejorar". Los tenemos aquí al lado, en Iragi, un pequeño y precioso pueblo de Esteribar; son un producto de primer premio y Km. 0. Si queréis probarlo, mejor llamar antes de pasaros.




Atekoak jaso duen sari bakarra izan: "Zenbait lehiaketetara aurkeztu izan gara, naziokoak zein nazioartekoak, eta hainbat sari jaso ditugu; besteak beste, 2008an World Cheese Urrezko Domina irabazi genuen, Dublinen, eta 2009an Brontzezko Domina Kanarietako World Cheese txapelketan. Lehiaketa hauei esker, beste leku batzuetako jendea eta lan egiteko moduak ezagutu ditugu. Prestakuntza beharrezkoa da, mugimenduan mantentzen zaitu eta hobetzen laguntzen dizu". Saria gurea, izan ere, hementxe ondoan baitugu Atekoa, Iragin bertan, Esteribarko herri txiki eta ederrean: lehen mailako eta km 0-ko produktu bikaina. Bertatik bertara dastatu nahi izanez gero, pasa aurretik deitu besterik ez duzue.

## "EL VIENTO QUE AZOTA LA MONTAÑA", UNA NOVELA DE NEREA ROSADO

Nerea Rosado nació en Vitoria y vive en Urdaniz desde hace cuatro años. En su casa todos han sido siempre grandes aficionados a la lectura, aunque lo que realmente ha soñado hacer Nerea desde que recuerda es escribir. En la adolescencia fueron poesías y relatos cortos que nunca enseñó a nadie, pero hace tres años decidió ir más allá y puso manos a la obra de la que ha sido su primera novela.

Animada por su familia, quitando tiempo al sueño, después de trabajar, esta vez ha tenido el objetivo de ver su trabajo publicado y su deseo se ha convertido en una novela que vio la luz el pasado febrero. "El viento que azota la montaña" narra dos historias diferentes en dos distintos momentos históricos, aparentemente incompatibles, pero que, finalmente y de manera inesperada, cobran un único sentido. Inspirada por una experiencia personal, invita al lector a sumergirse en su particular universo, donde nos descubre tanto su pasión por la montaña como por la naturaleza.

Nerea nos dice: "Estoy muy contenta de ver cómo ha respondido el público, tanto que ya estoy preparando una segunda parte. En "El viento que azota la montaña" buscaba conmover al lector, esta segunda parte tiene más misterio y un cierto aire de novela negra." Si queréis disfrutar de su obra, el libro está publicado por la Editorial Círculo Rojo y puede pedirse en librerías (Elkar, Fnac, El Corte Inglés), en sus páginas oficiales o en Amazon.




## "EL VIENTO QUE AZOTA LA MONTAÑA" NEREA ROSADOREN ELEBERRIA

Nerea Rosado Gasteizen jaio zen, eta lau urte daramatza Urdaitzen bizitzen. Etxekoak irakurzale amorratuak izanik, Nerearen betiko ametsa izan da idaztea. Inoiz inori erakutsi ez zizkion olerkiak eta kontakizun laburrak idatzi ohi zituen nerabezaroan, eta duela hiru urte haratago joatea erabakita ekin zion bere lehen eleberria idazteari.

Familiak animaturik, loari denbora lapurtuta eta lanorduetatik kanpo, lana argitaratuta ikusteko helburuz aritu eta joan den otsailean atera da argitara eleberria: "El viento que azota la montaña" liburuak bi une historiko ezberdinetan jasotako bi istorio kontatzen ditu, itxuraz bateraezinak diruditen arren, azkenean, ustekabean, zentzu bakarra hartzen dutenak. Bere azalean bizitako esperientzia batek inspiratuta, lanaren bitartez, mendiarekiko zein naturarekiko sentitzen duen pasioa transmititu eta bere unibertso partikularrean murgiltzera gonbidatzen du irakurlea.

Hauxe esan digu Nereak: "Oso pozik nago publikoak emandako erantzuna ikusita, eta bigarren atala prestatzen ari naiz. "El viento que azota la montaña" lanaren bidez, irakurlea hunkitzea nuen helburu, bigarren zati honek, aldiz, nobela beltzaren misterio kutsu nabarmena dauka". Círculo Rojo argitaletxeak argitaratu du Nerearen liburua, eta eskuratu nahi izanez gero, Elkar, Fnac edota El Corte Inglés-eko liburu-dendetan, hauen web-orrialde ofizialetan zein Amazonen aurkituko duzue.





## LA ANTIGUA FERRERÍA Y LA REAL ARMERÍA DE EUGI

Fuente: Gran enciclopedia de Navarra

Conocer la historia nos permite amar un poco más el lugar donde vivimos. La antigua Ferrería de Eugi conocida también como la Real fábrica de Municiones de Olaberri, fue adquirida en 1535 por el virrey Diego Hurtado de Mendoza y Silva, 5º marqués de Cañete, para el autoabastecimiento de munición de artillería, armaduras y armas con destino a la defensa de Pamplona y del Pirineo occidental. Ubicada a unos 8 Km. del pueblo de sus hornos de fundición salían las bolas de artillería para la armada y para la capital del reino navarro. En torno a 1540 producía alrededor de 4.000 unidades anuales; después de unos años de inactividad, en 1589 reanudó su actividad para volver a detenerse en 1617 y funcionar esporádicamente hasta mediados del siglo XVII.

En S. XVII, por falta de dinero, su funcionamiento fue irregular. En el siglo XVIII, se procedió a la paralización y progresivo desmantelamiento de este complejo industrial de Eugi.

En octubre de 1794, tropas francesas llegaron hasta ella en medio de la Guerra de la Convención, iniciándose su desmantelamiento; en 1843, un informe detalló su estado ruinoso y se abandonó definitivamente.

Bajo las centenarias hayas del Quinto Real, quedan aún en pie los impresionantes muros de sus carboneras, los arcos de sillería sobre el cauce del Arga y los restos de los hornos de fundición. Puede reconocerse esta instalación como uno de los restos más antiguos de producción industrial en nuestra comunidad. Hoy, ha sido reconocida como Bien de Interés Cultural y después de años de trabajos arqueológicos y a través de su señalización nos cuenta su historia y la memoria de lo que fueron sus días de gloria.

Menos conocida es la Real Armería que se ubicaba más cerca del casco urbano, que hoy permanece bajo las aguas del pantano y que fue en su momento el único centro productor de armaduras de lujo de altísima calidad para la corte española que hubo en la península. Para trabajar en sus instalaciones en 1595 fueron traídos por Felipe II desde Milán técnicos italianos, maestros armeros y "doradores" que produjeron cascos y coseletes, hasta entonces importados de Italia, y magníficas armaduras artísticas. De aquellos artistas quedó el apellido Seminario que hoy llevan algunos de sus vecinos.



## EUGIKO BURDINOLA ZAHARRA ETA ERREGE ARMA OLA

Iturria: Nafarroako Entziklopedia Aundia

Historia ezagutzeak bizi garen lekua maitatzea ahalbidetzen digu. Eugiko burdinola zaharra, Olaberriko Munizioen Errege Fabrika edo Arma Ola bezala ere ezaguna, Diego Hurtado de Mendoza y Silva erregeorde eta Cañeteko 5. Markesak eskuratu zuen 1535ean, Iruñea eta mendebaldeko Pirinioak defendatzeko artilleria, armadura eta armen munizioaz hornitzeko. Honela, herritik 8 bat kilometrora, bere olako galdaketa-labeetatik ateratzen ziren armadarako eta Nafar Erresumaren hiribururako artilleria-bolak. Urtean 4.000 unitate inguru ekoizten ziren; eta zenbait urtetako geldiunearen ondoren, 1589an ekin zion berriz bere jarduerari 1617 urtera arte. Horrela, XVII. mendearen erdialdera arte, tarteka-marteka egon zen martxan.

Diru falta zela eta, aritu zen irregularki XVII. mendean, eta pixkanaka, Eugiko industria-gunea gelditu eta pixkanaka desegin zen XVIII. mendean zehar.

1794ko urrian, Frantziako tropak olaraino iritsi ziren Konbentzio Gerraren erdian, eta orduan hasi zen desegiten; 1843. urtean, txosten batek olaren hondamendi egoeraren berri zehatza eman eta behin betiko geratu zen bazter utzita.

Kintoko ehunka urteko pagoen azpian, oraindik ere zutik darraite ikaztobietako horma harrigarriek, Arga ibaiaren ibilguaren gaineko harlanduzko arkuek zein galdaketa-labeen hondakinek ere. Foru-erkidegoko industria-ekoizpenaren aztarna zaharrenetako bat dugu instalazio hau, gaur egun, Kultur Intereseko Ondasun gisa aitortua. Hainbat urtez luzatu diren arkeologia-lanei eta seinaleztapenari esker, bere historia eta bere loria-egunen memoriaren lekuko izan gaitezke gaur egunean ere.

Ez da horren ezaguna herrigunetik hurbilen zegoen Errege Arma Ola, izan ere, urtegiko uren azpian gelditu baitzen. Espainiako gorteako kalitate handiko luxuzko armadurak ekoizten zituen penintsulako gune bakarra izan zen bere garaian. 1595ean bere instalazioetan lan egiteko, Filipe II.ak Italiako Milandik ekarri zituen teknikariak, maisu armaginak eta "urreztatzaileak", eta haiek izan ziren ordura arte Italiatik esportatu ohi ziren kasko, koselete deiturikoak eta armadura artistiko bikainen ekoizleak. Garaiko artista haiengandik heldu da besteak beste gaurdaino ibarreko hainbat auzokidek daramaten Seminario abizena.

En la Real Armería de Madrid podemos ver como parte de su importante colección 8 armaduras pertenecientes a Felipe III y a sus tres hijos salidas de esta importante armería. Se conservan además un juego de parada (casco más escudo) y un arcabuz que fue regalo del Virrey de Navarra. En el Museo de Linz (Austria) podemos ver el escudo de la armadura a caballo, y el casco del juego de parada está en el Museo del Ejército de París. Hay manoplas distribuidas entre Inglaterra y los Estados Unidos (el Museo Metropolitan de Nueva York las cedió en préstamo a la Armería Real). Para saber más puedes visitar el Centro de Referencia Histórica de Olondo en Eugi.

Madrilgo Errege Arma Olako bilduma garrantzitsuaren parte, bertako olan ekoitzitako 8 armadura ikus ditzakegu, Felipe III.arenak eta bere hiru seme-alabenak, hain zuzen ere. Hauetaz gain, kasko eta ezkutu joko bat eta Nafarroako Erregeordearen opari izan zen arkabuza kontserbatzen dira. Austriako Linzeko Museoan zaldi gaineko arma jantziaren armarria ikus daiteke, eta geldialdirako jokoko kaskoa, aldiz, Parisko Armadaren Museoan dago. Ingalaterra eta Estatu Batuen artean banatuta daude eskuzorroak (New Yorkeko Metropolitan Museoak Errege armagintzari utzi zizkion maileguan). Gairi buruz gehiago jakiteko, Eugiko Olondoko Erreferentzia Historikoko Zentroa bisita dezakezu.

## EKUMAR, UN APICULTOR EN ESTERIBAR

Ekumar es un término de Urtasun en el que José Mari Esnoz tiene su colmenar, un espacio tranquilo en el que las abejas producen ese regalo de la naturaleza que es la deliciosa miel. "Son de la especie Apis Melífera, también conocida como abeja doméstica, la más habitual en Europa", nos dice. Además de miel, Jose Mary extrae de las colmenas otros productos como el propóleo, la cera o el pan de abeja que, a pesar de ser un producto menos conocido tiene propiedades aún más potentes que el propóleo."

"En estos últimos años ha bajado la producción de miel. El cambio en el clima se ha notado mucho, y la producción ha bajado a casi la mitad que hace unos años" nos comenta. "A finales de otoño las abejas se preparan para pasar el invierno y las colmenas se reducen, si vienes en primavera, verás cómo son mucho mayores, hasta cuatro y cinco veces mayores. A partir del verano voy reduciendo su tamaño, la abeja reina deja de poner huevos y la cantidad de abejas de la colmena se reduce. En primavera la reina comienza a aumentar la puesta de huevos, pudiendo llegar a poner 2.000 al día. Una reina puede de llegar a vivir hasta 4-5 años, pero normalmente a los dos años se cambia por una reina más jóven, para mantener el nivel de producción de la colmena. Hay una época que se llama "la gran mielada", un periodo de unos 15 días, en que pueden llegar a producir un kilo de miel al día. Las abejas cumplen diferentes funciones dentro del panal, las pecoreadoras, las más numerosas en la colmena, se encargan de traer el polen, pero hay también hay cuidadoras, que cuidan los huevos y limpian la colmena; constructoras de panal, estas suelen ser las más jóvenes y al cumplir los 20 días se convierten en pecoreadoras. Los zánganos son los machos que solo pueden vivir en la colmena si quedan reinas sin fecundar, después son expulsados y mueren.

En Ekumar se producen diferentes tipos de miel, principalmente de pradera, de bosque (brezo) y de flores de montaña. "Suelo hacer transhumancia de abejas y me las llevo a la Ribera donde producen miel de romero y tomillo. La humedad y la temperatura son muy importantes para la producción de miel".

## EKUMAR, ERLEZAIN BAT ESTERIBARREN

Urtasungo Ekumar eremuan du Jose Mari Esnozek erlategia. Naturaren opari dugun ezti goxoa sortzen dute bertako espazio lasaiean Jose Mariren erleek: "Apis Melífera espeziekoak dira, Europan ohikoena dugun erle arrunta edota etxe-erlea bezala ezagunak", diosku. Eztia ez ezik, beste produktu batzuk ere ateratzen ditu Jose Marik erlauntzetatik, hala nola, propolioa, argizaria eta erlearen ogia ere. Azken honek, hain ezaguna izan ez arren, propolioak baino propietate indartsuagoak ditu. "

Azken urteotan ezti ekoizpena jaitsi egin dela dio Jose Marik: "Klimaren aldaketa asko nabaritu da, eta ekoizpena duela urte batzuen ia erdira jaitsi da". "Udazken amaieran erleak negua igarotzeko prestatzen dira eta erlauntzak murriztu egiten dira. Udaberrian askoz handiagoak direla ikusiko duzu, lau eta bost aldiz handiagoak. Udatik aurrera txikiagotu egiten dut bere tamaina, erle erreginak arrautzak jartzeari uzten dio eta erlauntzako erle kopurua murriztu egiten da. Udaberrian erregina arrautza gehiago erruten hasten da, egunean 2.000 erruteraino. Erregina bat 4-5 urtez ere bizi daiteke, baina normalean bi urterekin erregina gazteago batek ordezkatzen du, erlauntzaren ekoizpen maila mantentzeko. Bada garai bat "eztialdi handia" deitzen dena, 15 egun inguruko aldia da, eta kilo bat ezti ekoitz dezakete egunean. Erleek hainbat funtzio betetzen dituzte abaraskaren baitan: erle langileak, erlauntzean ugarienak, polena ekartzeaz arduratzen dira, baina badira zaintzaileak ere, arrautzak zaintzen dituztenak eta erlauntza garbitzen dutenak; abaraskak egiten dituztenak gazteenak izaten dira eta 20 egun betetzean langile bihurtzen dira. Erlamandoak erlauntzan bizi daitezkeen arrak dira, baina ernaldu gabeko erreginak geratzen badira bakarrik bizi daitezke bertan, izan ere, behin bere lana eginda, erlauntzatik kanporatu eta hil egiten baitira.

Ekumarren ezti mota desberdinak ekoizten dira, batez ere, basoko txilar eztia eta lore eztiak. "Erleen transhumantzia egiten dut eta Erriberara eramaten ditut, erromero eztia eta ezkai eztia egiteko, izan ere, hezetasuna eta tenperatura oso garrantzitsuak dira eztia ekoizteko" azaltzen du Jose Marik.











## LA SALUD, ANTE TODO

### Como mejorar nuestro estilo de vida

Para evaluar nuestra salud las personas tendemos a confiar en los chequeos médicos. Sin embargo este tipo de actuaciones sanitarias en personas asintomáticas son menos útiles de lo que pudiera pensarse. Un resumen de los estudios realizados al respecto publicado el año pasado concluía que los que se sometían a revisiones anuales no enfermaban ni morían menos que los que no las hacían. Es decir, la verdadera prevención de enfermedades no consiste tanto en realizarse una analítica anual para conocer los valores de colesterol sino en mejorar nuestro estilo de vida adquiriendo y fomentando unos hábitos saludables.

¿Cuáles son esos hábitos de vida saludables? Antes de responder me gustaría compartir la siguiente reflexión: nos guste o no los seres humanos somos animales que pertenecemos a la especie homo sapiens y que por ello también hemos estado sometidos a las leyes de la naturaleza y a una biología evolutiva de millones de años orientada a la supervivencia. Por todo ello estamos diseñados para movernos, para obtener energía de determinados nutrientes a los que nos hemos adaptado a lo largo de nuestra historia y para vivir en sociedad.

Sin embargo, en estas últimas décadas hemos asistido a una progresiva transformación de nuestro entorno que nos ha hecho adoptar costumbres sedentarias, alimentarnos con un tipo de comida que nuestro cuerpo "no espera" y vivir más aislados en un mundo más intercomunicado. Estos cambios se han traducido en un aumento de problemas de salud como la obesidad, la hipertensión arterial, la hiperglucemia o el sedentarismo, y que a su vez, han supuesto un incremento de enfermedades como el síndrome metabólico, la diabetes tipo 2, el ictus, la cardiopatía isquémica, el cáncer, etc. principales causas de la discapacidad y mortalidad actuales. Incluso han bastado tan solo unos meses de confinamiento domiciliario para que hayamos constatado en las consultas un empeoramiento en el control de dichos factores de riesgo y un incremento de los malestares emocionales de las personas.

## OSASUNA LEHENTASUN

### Nola hobetu gure bizimodua

Gure osasuna ebaluatzeko, pertsonek azterketa medikoetan konfiantza izateko joera dugu. Hala ere, pertsona asintomatikoentzako osasun-jarduera horiek ez dira uste bezain erabilgarriak. Horri buruz iaz argitaratutako azterlanen laburpen baten arabera, urteko azterketak egiten zituztenak ez ziren besteak baino gutxiago gaixotzen edo hiltzen. Hau da, gaixotasunen benetako prebentzioa ez datza kolesterolaren balioak ezagutzeko urteko analisia egitean, baizik eta gure bizimodua hobetzean: ohitura osasungarriak hartu eta sustatzean, hain zuzen ere.

Zein dira bizi-ohitura osasungarri horiek? Erantzun aurretik, honako gogoeta hau egin nahiko nuke: gizakiok gustuko izan ala ez, homo sapiens espezieko animaliak gara, eta, horregatik, naturaren legeen eta biziraupenera bideratutako milioika urteko eboluzio-biologiaren mende ere egon gara. Horregatik guztiagatik, mugitzeko diseinatuta gaude, gure historian zehar egokitu ditugun elikagai jakin batzuetatik energia lortzeko eta gizartean bizitzeko.

Azken hamarkada hauetan, ordea, gure ingurunea aldatzen joan da pixkanaka, eta horrek ohitura sedentarioak hartzera eraman gaitu, gure gorputzak "espero ez duen" janari-motarekin elikatu gara, eta isolatuago bizi gara mundu interkomunikatuago batean. Aldaketa horien ondorioz, areagotu egin dira obesitatea, hipertentsio arteriala, hiperglauzemia edo sedentarismoa bezalako osasun-arazoak, eta, aldi berean, areagotu egin dira gaixotasun hauek: sindrome metabolikoa, 2 motako diabetesa, iktusa, kardiopatia iskemikoa, minbizia eta abar, gaur egungo ezgaitasunen eta hilkortasunaren arrazoi nagusi bilakatzeraino. Are gehiago, hilabete batzuk baino ez dira aski izan etxean konfinatzea, kontsultetan egiaztatzeko arrisku-faktore horien kontrolak okerrera egin duela eta pertsonen emozio-arazoak areagotu egin direla.

Beraz, esan dezakegu bizitza osasuntsuagoa izaten lagunduko digutela mugimendura, jarduera fisiko aerobikora eta indar-jarduerara hurbiltzen gaituenak, gure gorputzak behar bezala funtziona dezan

Por tanto, podemos afirmar que todo lo que nos acerque al movimiento, a la actividad física aeróbica y de fuerza, a la ingesta de determinados nutrientes para que nuestro cuerpo funcione de manera óptima, y a evitar la soledad nos va a permitir tener una vida más saludable. Y por contra, pasar muchas horas sentado, no ejercitar nuestros músculos ni nuestro cerebro, comer comida insana, fumar, beber alcohol o bebidas azucaradas o no respetar las horas de sueño, nos va a aumentar el riesgo de enfermar.

En conclusión, si quieres vivir con salud toda tu vida, no te encomiendes a una analítica anual para saber cuánto colesterol tienes sino cambia de actitud, hazte responsable de tu propio cuerpo y céntrate en mejorar los estilos de vida. Sé que no es tarea fácil pero tampoco es tan complicado como piensas. No busques excusas y empieza desde ahora mismo. Tu cuerpo te lo agradecerá. Salud y fuerza.

Dr. José Javier Celorrio (Médico de Familia C. de Zubiri)

elikagai jakinak hartzera eta bakardadea saihestera hurbiltzen gaituzten guzti-guztiak. Eta, aitzitik, nabarmen areagotzen dutela gaixotzeko arriskua ordu asko eserita pasatzeak, gure giharrak eta garuna ez trebatzeak, janari osasungaitza jateak, erretzeak, alkoholak edo edari azukretsuak edateak edota lo-orduak ez errespetatzeak.

Beraz, bizitza osoan osasunez bizi nahi baduzu, ez mugatu urteko analisi bat eskatzera zenbat kolesterol duzun jakiteko, eta alda ezazu jarrera, egin zaitez zeure gorputzaren erantzule eta saiatu zure bizi estiloa hobetzen. Badakit ez dela lan erraza, baina ez da uste bezain zaila ere. Aitzakiak alde batera utzi eta hasi gaur bertan. Zure gorput zak eskertuko dizu. Osasuna eta indarra.

José Javier Celorrio. Zubiriko kontsultategiko familia-medikua

## ESTERIBAR CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO

El 17 de diciembre de 1999, la Asamblea General de las Naciones Unidas designó el 25 de noviembre como "Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer" para denunciar la violencia que se ejerce sobre las mujeres en todo el mundo, sensibilizar a la población y reclamar políticas en todos los países dirigidas a combatirla y erradicarla.




El Gobierno de Navarra también ha sido un agente activo en el ámbito normativo y legislativo, siendo pionero en la promulgación de leyes para la igualdad de mujeres y hombres. La última de ellas ha sido la Ley Foral 17/2019, de 4 de abril, de Igualdad entre Mujeres y Hombres aprobada en el Pleno del Parlamento Foral el 28 de marzo de 2019.

El Ayuntamiento de Esteribar dentro de su programa de actuaciones contra la violencia de género, ha procedido a la señalización de los 5 puntos de acceso al valle con los carteles "ESTERIBAR NO TOLERA LAS AGRESIONES SEXISTAS".

En lo que llevamos de año en España han sido 41 las mujeres asesinadas a manos de sus parejas o ex-parejas, afortunadamente en Navarra no hemos tenido ningún caso. Recordemos que el Teléfono 016 atiende a las víctimas de violencia de género y no deja rastro en la factura telefónica.

## ESTERIBAR GENERO-INDARKERIAREN AURKA

1999ko abenduaren 17an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak azaroaren 25a "Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna" izendatu zuen, mundu osoan emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria salatzeko, herritarrak sentsibilizatzeko eta herrialde guztietan indarkeria horri aurre egiteko eta desagerrarazteko politikak eskatzeko.

Nafarroako Gobernua ere eragile aktiboa izan da araugintzan eta legegintzan, eta aitzindaria izan da emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeak aldarrikatzen. Azkena 17/2019 Foru Legea izan da, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa, Foru Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2019ko martxoaren 28an onartua.

Esteribarko Udalak, genero-indarkeriaren aurkako ekintzen programaren barruan, haranera sartzeko 5 guneak seinaleztatu ditu, "ESTERIBARREK EZ DU ERASO SEXISTARIK ONARTZEN" kartelak jarrita.

Espainian 41 emakume hil dituzte beren bikotekideek edo bikotekide ohiek aurten. Zorionez, Nafarroan aurtengoan ez dugu heriotza kasurik izan. Gogora dezagun 016 dela genero-indarkeriaren biktimak artatzeko telefono-zenbakia eta erabiliz gero, ez duela arrastorik uzten telefono-fakturan.



Moztu puntuzko lerroan zehar

Cortar por la línea de puntos



Fichas coleccionables - Rutas de Esteribar Bilduma-fitxak - Esteribarko bideak

SEÑALIZADA

### 12 KINTOAN BARNA: EUGI-ZUBIRI

eremua

WWW.EREMUA.COM

7,5 km · 6,7 km · 100 m · 224 m · 1 h 45 min · 1 h · Eugi y Zubiri · Eugi Zubiri Saigots



DESCRIPCIÓN DE LA RUTA / IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

**KINTOAN BARNA: EUGI-ZUBIRI**

Ruta de sentido bidireccional que une las poblaciones de Eugi y Zubiri a través de una combinación de senderos que discurren paralelo al río Arga. Durante 7.5 kilómetros cruzaremos zonas de bosque y hayedo, la regata de Etxarro o el puente medieval de Saigots.

En la zona de Eugi, saliendo del pueblo tenemos dos variantes de sendero: una para bicicletas que parte por la carretera y entra por sendero en el cementerio de Urtasun, y otra, saliendo por la calle Ospel en dirección a las faldas de Azegi (Zokolu). 500 metros antes del puente medieval de Urtasun, ambos senderos se unen y en adelante el sendero es apto para bici y senderismo.

**KINTOAN BARNA: EUGI-ZUBIRI**

Arga errekaren ondoan, Eugi eta Zubiriren artean, zenbait bidexkak osatzen duten bi norabideko ibilaldia. 7,5 kilometroan, baso eta pagadi eremuak zeharkatuko ditugu, Etxarro errekattoa eta Saigotseko Erdi Aroko zubia.

Eugi aldean, herritik ateratzean, bidearen bi aldaera ditugu: bat bizikletan egiteko, errepidean hasi eta bidexka batetik Urtasungo hilerrian sartzen dena, eta bestea, Ospel karrikatik abiaturik, Azegiko magalerantz joaten dena (Zokulu). Urtasungo Erdi Aroko zubia baino 500 metro lehenago, bi bideak elkartzen dira eta hortik aurrera, bidea egokia da bizikletaz zein oinez egiteko.

AYTO. de ESTERIBAR ESTERIBARKO UDALA · EUSKO KONTZEJUA · Nafarroa Reyno de Navarra · Interreg POCTEFA · UNIÓN EUROPEA

SEÑALIZADA

# 12 KINTOAN BARNA: EUGI-ZUBIRI

